**Esp.-kodea:** 2014SAPL0008

**U D A L   P L E N O A**
**Bilkura arrunta**

## BILKURA DATUAK

| EGUNA: | TOKIA |
|---|---|
| 2014/07/01 | Udaletxea |
| HASIERA ETA BUKAERA ORDUA | |
| 18:00 - 18:40 | |

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak:
Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maider Morras Azpiazu (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:**
Omer Arregi Biain (BILDU)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

**BERTARATZE ETA IRTEERAK:**

Kepa Urteaga (BILDU) zinegotzia 18:24an sartu da bilkura gelara, 6. puntuaren eztabaidan.

Maria Ubarretxena (EAJ-PNV) zinegotzia 18:25ean sartu da bilkura gelara, 6. puntuaren eztabaidan.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Arratsaldeon, hasiera emango diogu gaurko Plenoari.

## 1.- 2014KO EKAINAREN 3KO BILKURARI DAGOKION AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuraren akta onartu du.

## 2.- EUSKO JAURLARITZAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA EGITEA, AGIRIEN ERREGISTRO BATERATUA EZARTZEKO (2014PBAJ0003)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"2006ko maiatzaren 29an, Udal Plenoak onartu zuen Eusko Jaurlaritzarekin Lankidetza Hitzarmena sinatzea, agirien erregistro bateratua ezartzeko. Horren ondoren, eta dagokion tramitazioa bete ondoren, 2006ko uztailaren 28ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren iragarkia, aipatu hitzarmena argitaratuz. 2014ko uztailaren 27an hitzarmenaren indarraldia bukatu egingo da.

Udalak aipatu lankidetza hitzarmenaren balorazio baikorra egin du, eta aurrerantzean ere arrasatearrei zerbitzu hori eskaintzen jarraitu nahi du; hortaz, hitzarmen berria sinatu beharra dago.

Eusko Jaurlaritzarekin sinatu beharreko hitzarmen proposamenaren berri eman da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta haren mendeko diren zuzenbide publikoko entitateen administrazioarentzat diren eskabideak, idatziak eta komunikazioak Arrasateko Udaleko Erregistroan aurkeztu ahal daitezen, 30/1992 Legearen 38.4 b) artikuluan jasotzen denaren arabera.

Hitzarmenak 4 urteko iraupena du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita eta automatikoki beste lau urtez luzatuko da, esku hartzen duten administrazioetako batek berariaz salatu ezean.

Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordeak, gaia ikusi eta aztertu eta gero, hauxe proposatzen dio Udal Plenoari:

**LEHENENGO.-** Eusko Jaurlaritzarekin Lankidetza Hitzarmena izenpetzea onartzea eta ahalmena ematea Inazio Azkarragaurizar Larreari Alkate-Lehendakariari hitzarmena sinatu dezan.

**BIGARREN.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinaraztea."

## 3.- UDALAREN ñUDALHITZò HITZARMENEAN JASOTAKO 96.BIS ARTIKULUA (SUSTATUTAKO BORONDATEZKO BAJAK) EGOKITZEKO PROPOSAMENA (2010PLHI0001)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"Udal honetako funtzionarioen lan baldintzak erregulatzen dituen Akordioak (UDALHITZ), Udalbatzak onartu zuena 2006ko apirilaren 28an, 95. eta 96. artikuluetan erregulatzen ditu '*adinarengatik borondatezko erretiroa*' eta '*erretiro aurreratuko primak*', baina ez zuen ezartzen, hala ere, saritzeko ezein neurririk, funtzionarioek administrazioko langile izaerari borondatez uko egin edo utzi nahi izateari buruz, izan ere, erretiro aurreratuko adina betetzen badute ere, ezin dute izan halako prestaziorik.

Horregatik, 2010eko uztailaren 26an, ordezkari sindikalekin bat eginik, erretiro aurreratuko adinean borondatezko baja erregulatu zuen Udalbatzak, eta 'Udalhitz' horren 96. artikuluari bis) atal bat sartu zuen.

Erregulazio hori, hala ere, ia-ia aplikaezin bihurtu da, erretiro aurreratuei buruz eta, zehazki, gaur egun 63 urtetik aurrera erretiro modalitate hori lortzeko dagoen aukerari buruz 2013ko urtean izan diren legezko aldaketak kontuan izanik.

Hortaz, lanpostuetan erreleboa sustatzeko neurri honek indarrean jarraitu dezan nahi badugu, beharrezkoa da, nahitaez, erregulazio hori oraingo araudi testuinguruari egokitzea, eta oraingo testuan, Pertsonal sailak egindako proposamen teknikoarekin bat, hauek aldatzea:

Hona hemen zer dioen:

**1.1. Gizarte Segurantzako Erregimeneko kotizatzailea izan behar du langileak; araudiak uzten ez dionean aldez aurretik erretiroa hartzea.**

Hona hemen zer esan behar duen:

**1.1. Gizarte Segurantzako Erregimeneko kotizatzailea izan behar du langileak; araudiak uzten ez dionean, eskaera egunean, aldez aurretik erretiroa hartzea.**

Hona hemen zer dioen:

**2.2. ….. dokumentazioa:**

**- Gizarte Segurantzak emandako jatorrizko ziurtagiria; ziurtatuko du eskatzaileak ezin duela hartu erretiro aurreratua 65 urte egin baino lehen.**

Hona hemen zer esan behar duen:

**2.2. ….. dokumentazioa:**

**- Gizarte Segurantzak emandako jatorrizko ziurtagiria; ziurtatuko du eskatzaileak ezin duela hartu, eskaera egunean, erretiro aurreratua.**

---

Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordeak, gaia azterturik, eta ordezkari sindikalak bat datozela, hauxe proposatu du:

**LEHENENGO.-** Udal honetako funtzionarioen lan baldintzak erregulatzen dituen UDALHITZ Akordioaren (indarrean dagoena) testuko 96. bis artikulua aldatzea, eta honela egongo da idatzita:

1. Arrasateko Udaleko karrerako funtzionarioek eta lan kontratuko langileek, udalean zerbitzu aktiboan egon eta hemen ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eskaera egin ahal izango dute Arrasateko Udaleko administrazioko langile izateari uko egitea, sustatutakoa.

1.1. Gizarte Segurantzako Erregimeneko kotizatzailea izan behar du langileak; araudiak ez dionean uzten aldez aurretik, eskaera egunean, erretiroa hartzea.

1.2. Neurri honetan jasota datozen eskubideak erabiltzeko, 60 urte eduki behar dira eta gutxienez 10 urteko antzinatasuna Arrasateko Udalean, eta horietatik, gutxienez 5 urte izan behar dira udalean benetan zerbitzuak ematen, uko egiteko eskaera aurkeztu aurrekoak.

2. Dagokion prima kobratzeko eskubidea benetan izateko, aldez aurreko baldintza hauek bete beharko dira:

2.1. Sustatutako uko egitearen neurria izateko eskaera aurkeztu behar da idatziz, gutxienez gertaera eragilea izan eta hiru hilabete lehenago, eta eskaera hori alkateak onartu beharko du, Pertsonal batzordearen

1. El personal funcionario de carrera y laboral fijo del Ayuntamiento de Arrasate en situación de servicio activo en la misma que cumpla los requisitos que se establecen a continuación, podrán solicitar la renuncia incentivada a su condición de empleado público del Ayuntamiento de Arrasate.

1.1. Debe ser personal cotizante al Régimen de la Seguridad Social cuya normativa no le permita –a la fecha de solicitud- jubilarse anticipadamente.

1.2. Para el acceso a los derechos previstos en la presente medida, es requisito tener 60 años y una antigüedad mínima de 10 años en el Ayuntamiento de Arrasate, de los cuales, al menos los 5 años inmediatamente anteriores al de la presentación de la solicitud de renuncia han de ser de prestación de servicios efectivos en la misma.

2. Para la efectividad del derecho al cobro de la prima correspondiente deberán cumplirse los siguientes requisitos previos:

2.1. La solicitud para acogerse a la medida de la renuncia incentivada se deberá presentar por escrito con una antelación mínima de tres meses a la fecha del hecho causante, solicitud que deberá

aldeko txostena izan eta gero.

2.2. Arrasateko Udaleko langile izaerari uko egiteko neurrira biltzeko eskaerarekin eta dagokion prima ordaintzeko eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Dagokion egunetik aurrera, Arrasateko Udaleko langile izaerari berariaz uko egiten dion agiria.

— Gizarte Segurantzak emandako jatorrizko ziurtagiria, ziurtatuko duena eskatzaileak ezin duela hartu, eskaera egunean, erretiro aurreratua.

— Idatziz uko egitea ordaindutako beste edozein jarduera egiteari, bere edo besteren kontura, sustatutako uko egitea onartzen duenetik.

3. Lehen ezarritako baldintzak betetzen dituen langilea bai bildu daiteke sustatutako uko egitearen neurrira, eta horrela prima bat jaso ahal izango du, xehetasun honen arabera:

| **ADINA** | **Zenbat hilabete** |
|---|---|
| 60tik 61 urtera | 21 |
| 61etik 62 urtera | 17 |
| 62tik 63 urtera | 12 |
| 63tik 64 urtera | 9 |
| 64tik 65 urtera | 6 |

3.1 Primaren zenbatekoa kalkulatuko da beti urteko ordainketa oso gordinei buruz, eta ordainketa hori hainbanatuko da hilez hil, –urtez urte-.

3.2 Edozelan ere, eskubide ekonomikoek eragina izango dute uko egitea onartzen den egunetik.

ser aceptada por la Alcaldía, previo informe favorable de la C.I. de Personal.

2.2. Junto con la solicitud de acogerse a la medida de renuncia a la condición de empleado público del Ayuntamiento de Arrasate y solicitud de abono de la prima correspondiente se deberán acompañar la siguiente documentación:

— Documento por el que se renuncie expresamente a la condición de empleado público del Ayuntamiento de Arrasate a partir de la fecha correspondiente.

— Certificado original emitido por la Seguridad Social por el que se certifique que el solicitante no puede acogerse –a la fecha de la solicitud- a la jubilación anticipada.

— Renuncia escrita a desempeñar cualquier otra actividad remunerada, por cuenta propia o ajena, a partir de la aceptación de la renuncia incentivada.

3. El personal que reúna los requisitos anteriormente establecidos podrán acogerse a la medida de la renuncia incentivada, lo que le permitirán percibir una prima, conforme al siguiente detalle:

| **EDAD** | **Nº de mensualidades** |
|---|---|
| 60 a 61 años | 21 |
| 61 a 62 años | 17 |
| 62 a 63 años | 12 |
| 63 a 64 años | 9 |
| 64 a 65 años | 6 |

3.1 La cuantía de la prima se calculará siempre con referencia a retribuciones íntegras brutas anuales, prorrateándose por meses –entre año y año– dicha retribución.

3.2 En todo caso, los derechos económicos surtirán efectos desde la fecha de aceptación de la renuncia.

**BIGARREN.-** Jakinaraztea akordio hau 'Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean' eta behar duen publizitatea ematea akordioari."

## 4.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALA (2014PRPT0001)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"Udalbatzarrak, 2013ko abenduaren 26an egindako bilkuran, Udal honetako funtzionarioei eta lan kontratuko langileei erreserbatutako plazen plantila onartu zuen, bai eta lanpostuen zerrenda ere.

Plantila, legeak ezartzen duenaren arabera, aurrekontua onartu eta gero aldatu ahal izango da, indarrean dagoen urtean, hauei erantzuteko: zerbitzu berriak ezartzea, hurrengo urtealdirako geroratzea onartzen ez duten zerbitzuak handitzea, kentzea edo hobetzea, bai eta barneko administrazio antolaketako irizpideez ere.

Bestalde, eta Lanpostuen Zerrendari dagokionez, aipatu behar da agiri hori etengabe eguneratu behar dela, berez duen izaera dinamikoarengatik eta uneoro izan dadin Udal honetako antolaketa beharren benetako adierazpidea.

Oraingo honetan, 33 kodea duen lanpostua – Ihardueretako aparejadorea -, bere titularrak erretiroa hartuta, hutsik geldituko dela eta, komenigarritzat jo da, saileko buruak egindako proposamenari jarraiki, haren ezaugarrietako batzuk aldatzea, hala nola:

| | ORAINGOA | BERRIA |
|---|---|---|
| **Izena** | Aparejadorearen jarduerak. | Hirigintza, eraikuntza eta mugikortasuneko teknikaria. |
| **Egitekoak** | **Ardura orokorrak:**<br>- Arduratzea hirigintzako espedienteei buruzko informazioaz eta haiek izapidetzeaz.<br>- Proiektu teknikoak egitea, zuzentzea eta horien berri ematea.<br>**Zeregin esanguratsuenak:**<br>- JGOKAEk sailkatutako jarduera salbuetsiak eta kaltegabeak jarri, ireki eta hasteko espedienteak izapidetzea.<br>- Proiektu teknikoak egitea, eta lekuan bertan datuak lortzea, harremanetan jartzea interesdunekin, planoak eta aurrekontuak egitea, agiriak, segurtasuneko azterketa eta memoria... | **Ardura orokorrak:**<br>- Arduratzea hirigintzako eraikuntza eta mugikortasun espedienteei buruzko informazioaz eta haiek izapidetzeaz.<br>- Proiektu teknikoak egitea, zuzentzea eta horien berri ematea.<br>**Zeregin esanguratsuenak:**<br>- Proiektu teknikoak egitea, eta lekuan bertan datuak lortzea, harremanetan jartzea interesdunekin, planoak eta aurrekontuak egitea, agiriak, segurtasuneko azterketa eta memoria...<br>- Udal obrak zuzentzea, esleitutako obraren segurtasuna eta laneko osasuna koordinatzea, egindako lanak egiaztatzea eta ziurtagiriak egitea. |

| | | |
|---|---|---|
| | - Udal obrak zuzentzea, esleitutako obraren segurtasuna eta laneko osasuna koordinatzea, egindako lanak egiaztatzea eta ziurtagiriak egitea. | - Koordinatzea obretako segurtasun eta osasun gaietan eta zaintzea beteko direla eta egingo direla. |
| | - Koordinatzea obretako segurtasun eta osasun gaietan eta zaintzea beteko direla eta egingo direla. | - Txostenak egitea eskatzen duten udal batzordeentzat. |
| | - Txostenak egitea eskatzen duten udal batzordeentzat. | - Obrak bisitatzea. |
| | - Ingurumen Sailarentzat txostenak eta zereginak egitea. | - Jendea hartu eta informazioa ematea: |
| | - Ingurumen Batzordeari aholku teknikoak ematea. | - Udalkideei informazioa ematea. |
| | - Isolamenduko hots neurketak egitea eta zaratak egiaztatzea. | - Hirigintza eta Obretako Batzordea informatzeko, aldizkako bilera teknikoetara joatea. |
| | - Sonografoak jarri, irakurri eta horko datuak aztertzea. | - Udal ekitaldietan parte hartzea, zuzendu eta aholku teknikoak emateko. |
| | - Obrak bisitatzea. | - Laguntzea hirigintzako araudia egiten. |
| | - Jendea hartu eta informazioa ematea: | - Jarduera jarri, ireki eta hasteko espedienteak izapidetzea. |
| | - Udalkideei informazioa ematea. | - Jardueren erregistroa kudeatzen laguntzea. |
| | - Hirigintza eta Obretako Batzordea informatzeko, aldizkako bilera teknikoetara joatea. | - Mugikortasun politikekin lotutako espedienteak izapidetzea. |
| | - Udal ekitaldietan parte hartzea, zuzendu eta aholku teknikoak emateko. | - Garraioaren udal kontratuak kudeatzen eta trafikoa eta aparkalekua kudeatzen laguntzea. |
| | - Laguntzea hirigintzako araudia egiten. | - Hirigintza sailean bere mailari egokitutako beste edozein lanpostu teknikoren egiteko espezifikoak betetzea, hala dagokionean. |
| | - Joko eta ikuskizunei buruzko araudia eta interbentzioa kudeatzea. | - Bere kategorian eskatzen dioten beste edozein zeregin egitea, betiere aldez aurretik irakatsi badiote. |
| | - Jardueren erregistroa kudeatzen laguntzea. | - |
| | - Hala badagokio, unitateko beste edozein aparejadore lanposturen egiteko espezifikoak betetzea. | |
| | - Bere kategorian eskatzen dioten beste edozein zeregin egitea, betiere aldez aurretik irakatsi badiote. | |
| **Titulazio eskakizunak** | - Arkitektura teknikoa | - Aparejadorea, arkitektura teknikoa, obra publikoetako injineru teknikoa, arkitektura teknikoaren gradua, Eraikuntzako injinerutzako gradua edo injinerutza zibileko gradua. |
| **Dedikazioa** | Espezialitatea %15 | Normala |

Horren arabera, Pertsonal buruak emandako txosten teknikoa ikusirik, Pertsonal Batzordeak Udalbatzarraren iritzipean jartzen du AKORDIO hau hartzea:

**LEHENENGO.-** Puntualki aldatzea lanpostuen zerrenda, eta ondorioz 33 zk.ko kodeko lanpostuari lehen aipatu aldaketak ezartzea atal hauetan: Izena, egitekoak, titulazio baldintzak, eta dedikazioa.

**BIGARREN.-** Aldaketa hori argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean."

## 5.- MOZIOA, ELA SINDIKATUAK AURKEZTUTAKOA, UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKOA (2014SMOZ0014)

Idazkariak Arrasateko Udaleko ELAko Atal Sindikalak aurkeztutako ondoko mozioa irakurri du:

"Arrasateko Udaleko ELAko Atal Sindikalak, bere afiliatu direnen ordezkari izanik, udaleko talde politikoek ondorengo MOZIO hau zuena egin eta Plenoan eztabaida eta bozketarako aurkezteko eskatzen du.

Jakingo duzuen moduan, 2008 urtean (martxoaren 14ko 38312008 Erret Dekretua), suhiltzaileek; 60 urterekin jubilatu ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren egoerak kontutan hartuta.

Era berean, 2009 urtean, EAJ-PNV eta PSOEk Madrilgo Parlamentuan eginiko akordio baten bitartez, Ertzaíntzarentzako 60 urterekin aurrejubilatzeko eskubidea lortu zen, hau ere, poliziek egiten duten lanaren ezaugarriak kontutan hartuta. Akordio honek, 2010ean izan zuen efektu data, Segurítasun Sozialaren gaien materiak arautzen dituen abenduaren 4ko 40/2007 Legean, jubilatzeko adinean aplikatzen diren murrizkete koefizienteen ingurukoan zuzenki aldaketa batzuk sartuta.

Ulergaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia Legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontutan hartu. Lege horrek argi esaten du, EUSKAL POLIZIA, Ertzaíntzak eta Udaltzaingoek osatzen dutela eta bi poliziek egiten duten lana antzerakoa dela, bai funtzioetan, baita gaikuntza profesionaletan ere.

Lege aldaketa hau justua eta behar beharrezkoa zen, izan ere polizia ogibidea, bereziki zaurgarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrekoa zela argi utzi baitzuen. Egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrak bere 161.1 bis artikuluan babesten du, "bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasunaren kalterako" diren ogibideen eta "heriotz tasa altuak " dauzkaten ogibideak koefiziente murriztaile hauek aplikatuko zaizkiela.

Esandako koefiziente murriztaileak aplikatzeak, sektorean dagoen penositate, arrisku eta toxikotasunaren gaineko lanak egitea exijitzen du, langileek izaten dituzten behin behineko ezgaitasunetan dauzkaten eragina eta esandako lana egiteko eskatutako baldintzen gaineko lanak egitea ere exijitzen du.

Unibertsate ezberdinek, udaltzainen eta polizia autonomikoen inguruan egin dituzten ikerketen arabera, arrisku eta penositate zantzuak daudela esaten dute eguneroko lanean eta lannpostu hauetara sartzeko eta eguneroko lana normaltasunez egiteko eskakizun psikofisikoak kontutan

hartuta, adin batetik aurrera ezin dela lanpostu honetan normaltasunez lan egin ere esaten dute. Era honetan, legediak jubilatzeko murrizketa koefizienteak izateko baldintzak guztiz betetzen dira.

Polizia lana arriskutsutzat jotzen den lana dela inork ez du eztabaidatzen jada, menpe dagoen instituzioa edozein izanda ere: Legediak, eginiko ikerketa lanek, lanean, adinean aurrera joateak daukan eragina (batez ere hiri handietan), etab. jubilatzeko adina aurreratzearen alde egiten dute.

Europa erreferentziatzat hartzen badugu, herrialde gehienetako polizien erretiratzeko baldintzak mozio honetan eskatzen denaren ildoan daude: Alemanian, 55 eta 60 urte artean jubilatzen dira; Belgikan 54 urtetik aurrera; Grezian 55 urterekin; Ipar Irlandan 35 urteko aintzinatasuna hartzean; Italian, Norbegian bezala, 60 uterekin eta Erresuma Batuan 57 urterekin.

Oreka ekonomiko eta finantziarioari begiratuz gero, aipaturiko Legeak (Gizarte Segurantzako gaien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea) bere bigarren xedapen gehigarrian, erretiro adinerako koefiziente murriztaileen inguruan zera esaten du: "*El establecimiento de coeficientes reductores de la edad. de jubilación, que sólo procederá,uando no sea posible la modificación de las condiciones de trabajo, conllevará los ajustes necesarios en la cotización para garantizar el equilibrio financiero*". Gizarte Segurantzan egin beharreko doikuntza horiek, Udaltzainek beraiek eta lana egiten duten administrazioek bere gain hartu beharko dituzte, Gizarte Segurantzara egin beharreko beraien atxikipenak handituz.

Ildo honetan, kostuen inguruko ikerketa akturialek, neurri hau hartzeak ekartzen dituen onuren inguruko edozein zalantza bertan behera uzten du. Udaltzainen erretiro adina aurreratzeak dakartzan Gizarte Segurantza kostuak igoko balira ere, plantillen gaztetzea ekarriko luke nahitanahiez eta ondorioz, absentismo eta behin behineko ezgaitasunen gutxitzea. Langile eta zerbitzuen errendimendua hobetzea ekarriko luke honek eta era berean hiritarrei zerbitzu hobe bat eskaintzeko puntu hobean jarriko luke instituzioa, baldintza psikofisiko hobeak izateak, Hiritarrentzako Segurtasunean eragin zuzena dauka eta.

Gainera, gogoratu behar dugu apirilaren 12ko 1/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak, zera esaten duela bere seigarren xedapen gehigarrian: "(... .) *el Gobierno presentará en el Congreso de los Diputados un estudio sobre los distintos regímenes de acceso a la jubilación de los funcionarios que contenga, entre otros aspectos, recomendaciones para asegurar la no discriminación entre colectivos con características similares y la conveniencia de ampliar la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada de determinados colectivos (. ... )*".

EAEko datuei begiratuta, udalerri guztiak kontutan hartuta dauden 3.300 udaltzain ingurutik, 500 baino gehiagok 60 eta 65 urte bitartean edukiko ditu hurrengo bost urteetan, hau da, %17a lehenago jubilatzeko adinean egongo da eta beste 600 baino gehiagok 55 urte baino gehiago izango ditu.

Udaltzainen aurre jubilazio honek, gainera, enplegu sorrera garrantzitsua ekarriko luke, gazteei lan merkaturako sarrera ahalbidetuko lioke, eta hau, enplegu sorrera izan beharko litzateke edozein instituzio publikoren oinarri garrantzitsuenetako bat. Azpimarratu behar dugu, aurre jubilazio honen helburua inoiz ezin dela ·izan lanpostuen amortizazioa, eta lanpostu horrek duina, egonkorra eta kalitatezkoa beharko lukeela.

Gainera, langileen gaztetzea ere ahalbidetuko luke, instituzioek langile aktiboagoak izango lituzkete eta honek, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea ekarriko luke.

ELAk askotan salatu du Euskal Herriko Udaltzainentzako, Erlzaintzak (eta beste polizia batzuk) aurre jubilatzeko aukera edukitzeak suposatzen duen marjinazioa. Honek, erregulazio baten beharra dagoela berretsi bestetik ez du egiten eta era berean euskal udaltzainak, Ertzaintzak

eta beste polizia batzuek daukaten baldintzetara ekiparatu beharra. Arrisku berberak,estaldura berbera.

Orain arte esandako guztia kontutan hartuta, ELAk, Euskal Udaltzaingoaren erretirorako baldintzak Ertzaintzak dauzkanarekiko ekiparatzea eskatzen du, erretiro adinaren erregulazioan aldaketa bat eginda. Honetarako Erret Dekretu bat egin beharko litzateke euskal udaltzaingoari ere erretirorako adinean koefiziente murriztaile bat aplikatu ahal izateko.

Horregatik, ELAko Atal Sindikala, mozio hau udal talde guztiek bere egitea eskatzen dugu, plenuan eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.

Aurrez esandako guztiagatik, AKORDIO hausk proposatzen dira, onartuak izan daitezen.

1.Arrasateko Udala, Gizarte Segurantzaren gaineko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltzearen alde azaltzen da, Euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan aldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007. Legea onartzea ahalbidetzen duena.

2. Arrasateko Udalak, Eusko Legebiltzarrari agindu ematen dio, era berean Espainiako Gobernua premiatzeko Gizarte Segurantza gaietako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen ·den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena

3. Arrasateko udalak, Euskal Udalen elkarteei (EUDEL eta UDALBILTZA) agindu ematen die ekintza honi babesa emateko eta ordua helduta berau aurrera eramateko datu eta dokumentuak eman ditzaten."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik?

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Arratsaldeon. Nosotros vamos a votar a favor de la moción aunque sabemos que el Ayuntamiento tiene muy pocas competencias a ese respecto, porque las competencias están en Madrid. Pero sí sabemos que se está elaborando un documento, se está tramitando un documento en el Parlamento Vasco en el que se mejora sustancialmente el texto que ha presentado ELA, y que seguramente tendrá el apoyo de la mayoría de los grupos parlamentarios en Gasteiz para poder enviarlo despues a Madrid.

Por lo que, bueno, nosotros votaremos a favor de la moción.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Guk ere ados bozkatuko dugu eta onartuko dugu mozioa.

**JOXE ETXEBRRIA (ARALAR):** Arratsaldeon. Guk ere baietza emango dugu, baina komentario pare bat egin nahi nituzke: alde batetik, mozioan agertzen da euskal polizia Ertzaintzak eta udaltzaingoak osatzen dutela, eta bi poliziak egiten duten lana antzekoa dela bai funtzioetan, bai gaikuntza profesionalean, eta beraz, arrisku berberak estaldura berberak. Suposatzen da baita ere prestakuntza ere antzekoa izango dela.

Zentzu horretan eta hemen mozioan agertzen diren arrazoi bideetan ez dago zalantzarik adinean aurrera goazen neurrian gure gaitasuna hainbat lanetarako gutxitzen da, eta esan behar da udaltzainak Gizarte Segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete ditzakeela, baina baita beste kolektibo batzuek ere, adibidez erizainak, garraiolariak, adinekoak zaintzen dituenak, irakasleak…beraz gaia dagokion seriotasuna eman behar zaio, eta azterketa sakon bat egin behar bai ezarpenaren erritmoari dagokionez eta bai noski horrek suposatzen duen koste ekonomikoan ere.

Nolabait gonbidatuko nituzke jarrera eta dinamika korporatiboak alde batera utzi, eta zentzu horretan beste kolektibo batzuekin ere bateratuta gauza aurrera eramatea. Dena den baietza bozkatuko dugu.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Arratsaldeon. Gu gutxigora behera Joxek esaten dauen ildotik eta detaile batzukin ados ez egon arren alde bozkatuko dugu. Eta esan be bai kolektibo desberdinak diela, azkenean diela irizpideak betetzen dituztenak 60 urteekin jubilatzeko ba Joxek esan dituenak besteak beste, obrak lan egiten dauenak, autonomoak baita ere, ikusi egin beharko litzake eta bueno kobertura edo berme hauek langileria guztiari zabaltzea, ezta? Horren aldekoak gara

Beste alde batetik be bai komentau ba Aritzek esan daben bezala, konpetentzia hau Madrilekoa dala, hau da, Estatu Espanoilak daukala bere eskuetan eta uste dugu burujabetzaren bidean komeniko jakula eta gu horren alde gaz, guk edukitzea konpetentzia Segurtasun Sozialarena koefiziente hauek aplikatzeko eskuduntzak guk edukitzea eta holaxe garantiak eta bermeak ematea Euskal Herriko langileriari kondizino duinetan jubilatzeko eta holan gizartea aberasteko. Eta besterik ez. Alde bozkatuko dugu.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Mozioa <u>ONARTUA izan da, AHO BATEZ.</u>**

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratutakoak** | **16** | |
| **Aldeko botuak:** | **16** | **BILDU (9), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3) eta ARALAR (1)** |
| **Aurkako botuak:** | **0** | |
| **Abstentzioak** | **0** | |

## 6.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA AUTOKONPOSTAJEA ETA AUZOKONPOSTAJEA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI (2013IHON0001)

Idazkariak Ingurumn Batzordearen ondoko diktamena irakurri du:

"Batzordeburuak Autokonpostaje eta Auzokonpostaje guneen funtzionamendua arautzeko Ordenantza aurkeztu du. Honen helburua da erregulatzea Arrasaten dauden, eta etorkizunean eraiki daitezkeen, konpostajeguneen erabilera baita erabiltzaileen eta Udalaren arteko harremana ere. Era berean erregulatuko dira autokonpostajea egiten duten herritarren eskubideak eta betebeharrak eta Arrasateko udalarekiko harremanak.

Gaia aztertu ondoren, zera proposatzen dio Ingurumen Batzordeak Udalbatzarrari, Batzordeburuaren eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin eta EAJ-ko ordezkariaren kontrako botoarekin:

**LEHENENGO.-** Hasierako onespena ematea Arrasaten Auzokonpostajea eta Autokonpostajea arautzeko Ordenantzari.(Ikus I. eranskina)

**BIGARREN.-** Jende aurrean erakustea Ordenantza, HOGEITA HAMAR EGUNEZ**,** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara ematen den egunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal izan ditzaten interesatuek.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluaren azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako paragrafoa, jendaurreko epean erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza behin-betikoz onartutzat joko da."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik?

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Guk aurka bozkatuko dugu ordenantza honi buruz eta, artikulu honi buruz, bonifikazioari buruz dauen artikulua, zeretik hartuta. Bonifikazioan artikulu honek esaten du zaborren tasak bonifikazioa izateko eskubidea izango dute etxebizitzetan sortutako materia organiko guztia konpostatzen dutenak, horrela ezingo dute hondakinik utzi hondakin organikoak biltze zerbitzuan. Honek nahi dau esatia hondakin guztiak derrigorrez konpostatu behar direla, eta hori arrazoi batzuk daukau aurka bozkatzeko. Alde batetik, diskriminazio bat sortzen duelako, ikusita makina bat konpostadore dauzela Arrasaten animalien hondakin eta sukaldatutakoak erabili ez duena nahi kalitatea murriztu eitxen delako ,hori denon zerian dau. Orduan hori ikusita bakarrik bonifikazioa ematen zaio danak hondakin guztiak honek geratzen dien kanpoan hori alde batetik.

Beste alde batetik honek ekarztten dauen arazoak. Honek animalien edo etxebizitzaren hondakin guztiak hartuta animaliaren hondakinen artean dago, alde batetik hezurrak, eta hezurrak konpostatzeko denbora asko behar da, urte asko. Hau ez da. Honek arazo batzuk ekarri behar ditu gero, hezur honek konpostatzeko, alde batetik eta Ordenantzan ez da hori hartzen trituratu beharra edo zer? Hondakinak hortik beste hondakin ez sortzeko eta errefusa ez izateko, triturau beharra, triturau behar horrek ekartzen dau kosto bat eta ekologikoki be gastu batzuk.

Gero beste alde batetik, hor sortzen diezen grasa eta beste gauza batzuk, animalien okelak, eta gauzak eta ekartzen duten kaltea ezta? Kaltea, ia sukaldaritzatuta badauz gatza be askoz ere altuagoa daukie eta hori kaltegarria da konpostandako. Eta honek guztiok eta gero daukien beste arazo batzuk be bai arratoiak eta gauzak lortzen diezenak sukaldariko hondakin honek konpostatzeko lekuetan. Eta horregatik ez daukat penalizaziorik bapez honek arazo honek, eta derrigorrez gainera eta Ordenantzan sartuta dauena da honen dena sartuta behar dute analisi bat egitea. Analisi bat fisikoki, kimikoki eta bakteriologikoki be bai, porke ia honek gauzak sartzean ia derrigorrez legalki arduratu behar zara analisi batzuk egin onartzteko konpost hori. Horregatik beste arrazoi batzuk dauz bonifikazioari buruz zalantzan jartzen duguna eta honen aparte gure taldeak be Ordenantza Fiskaletan iaz urrian aurka bozkatu genuen puntu hau, beste diskriminazio bat egiten duelako, porke herritarrak, herritar guztiak, familia guztiak ez daukie posibilitatea ez konpostatzeko eta ez auzokonpostatzeko, hori danok dakigu. Eta orduan bakarrik baten batzuk dira posibilitatea daukana eta horregatik orduan be puntu honi aurka bozkatu ginuan. Honek dira arrazoiak Ordenantza honetan beste danakin landu dugu komisioan beste ordenantza guztiak landuta dauz eta ados gaz baina ez bonifikazioari buruzkoa artikuluan.

**JOXE ETXEBRRIA (ARALAR):** Bakarrik esateko zan hau diktaminatu zan batzordean ez nitzela egon, eta aldeko botoa emango dutela adierazteko. Baina bueno orain Garitanona entzunda aipamen txiki bat behintzat egiteko gogoa ematen dit, eta da berak horrela pentsatzen badu,

konposta egiteko Araudia etxeko janak eta ez direla sartu behar irizpide bat dela berak horrekin ados egongo da, hori dependitzen eta eskubide osoa dauka horrela jarraitzeko, baina beste aukera ere balidoa da.

**JOSU PEREDA (BILDU):** Sarritan hitz egin dogun gaixa izan da. Ingurumen batzordean ekarpen ugari egin dituzu Ordenantza honetara, eta gainera kontuan hartu jatzue ekarpen guzti horiek, danak, eta aurka bozkatzeko arrazonamendua ematen duzu hobariaren gaiaren inguruan eta guk aipatu genuen ingurumen batzordean hobariaren inposibilitatea aplikatzeko dala arrazoia zuk eskatzen duzun hori ez egiteko. Posible balitz kontenplauko gendula beste hobari bat, frakzio berdearekin bakarrik konpostatzen dabienei. Baina hori ez dago kontrolatzerik, eta mila aldiz esan gotzen hori dala arrazoi bakarra hori ez hobaritzeko, arrazoi bakarra eta esan gotzen gainera onartu dizugun moduan ekarpen guztiak ekarri hona zelan kontrolau hori, prozedura bat eta ados egongo ginakeela. Baina ez duzu ekarri, ez dauelako modurik, eta hori da arrazoi bakarra ez dago beste arrazoirik beste hobari mota hori kontenplatzeko ez dauelako nola kontrolau.

**FRANCISCO GARCIA RAYA (PSE-EE):** Arratsaldeon. Prácticamente lo ha dicho Josu, yo quería reiterar que esta Ordenanza ha sido una ordenanza que se ha debatido muchísimo, no mucho, sino muchísimo en la comisión de Medioambiente, y es cierto que ha habido aportaciones de todos y también es cierto que todas las aportaciones han sido recogidas, excepto ésta. Las de todos. Y reiterar lo que dice Josu, como decía Joxe, cada uno es libre, evidentemente, de plantear cualquier cosa y cualquier grupo puede aportar lo que quiera en cualquier ordenanza y es legítimo. Pero prácticamente es imposible, como bien decía Josu, el planteamiento que hace el PNV tenga encaje en esta Ordenanza. Nosotros vamos a votar a favor, y no estamos de acuerdo con esta aportación, porque es que no se puede hacer. No se puede hacer y de otra manera si es que se haría es que además se produce un doble gasto, porque la persona que recicla el 100%, efectivamente tiene derechos a bonificaciones, pero lo que no es posible que una persona no bonifique al 100% utilice el servicio que utilizan todos los ciudadanos y además se le bonifique por eso. Eso no puede ser así, o todo o nada. Como todo no es posible tampoco es posible la aportación que hace el PNV a esta ordenanza.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Josu, nik kontrolatzeko zer hori, hor dago kontrolatzeko bidea dago hondakinak, edukiontziak jartzen diezenean organiko edukiontzia txipakin, txipakin kontrolatu leike zer horretan kontrol hori dago bakarra. Txip horreaz kontrolatzeko. Baina baita honek beste kamino bat zabaldu leike, kamino askoz problematikoagoa Eta da zuk segituan "*el que hizo la ley hizo la trampa*" esan leike. Orduan nik ez dut bota behar hau

edukiontzira, organikoko edukiontzira. porke bestela kendu ingozte hobari hau. Baina hartukot beste txipa esaten dana errefusan txipa eta hara botakot eta hara joango dia hezurrak eta hori. A ver zelan kontrolatzen duzun eta ez beste zer batera kontrola derrizgorrezkoa segituan suertatu leike holako zerak. Horregatik esaten dut beste sistema bat, inspekzinu bat egin zan zer guztiak konpostadore guztiari inspekzinu bat egin zan, eta informe bat dau horrena eta informe horretan oso garbi ikusten dau baina derrigorrez dana sukaldeko hondakin guztiak sartu behar dira bestela ez dago eta hori be ez dugu ikusten ondo. Kontrolari buruz arazo hori urten leike eta haber gero sortzen dugun beste bide bat edozein gauza botatzeko beste edukiontzietara.

**JOSU PEREDA:** Bakarrik esan inspekzinu hori egin izan zala hasiera baten inoiz egin barik zeulako inspekzinu bat, eta gure zalako ikusi azkeneko 10 urteetan banatutako konpostagailuak ze egoeratan zeuden eta aplikatzen hasi ahal izateko hobaria lehenengoko pausu moduan. Baina argi dago sarrera kontroldun edukiontzi horrek ahalbideratuko duzkuela kontrol hori, por supuesto ahalbideratuko duzkuela, oin tranpeetan hasten bada baten bat, bueno, ekidin ezina izango da hori errefusara botatzen baldin bada baten batek. Dena den konposta egiten daben edonork aurretik ikastaro bat egin behar dau eta ikastaro hori eginda eukiko leuke edozein herritarrek ezin dabela esan nik ez dut entregatzen organikorik eta nire aplikau dazu ez, egizu kursilloa, hartu konpostagailua ez da hain erraza, eta bestalde mila aldiz hitz egin dugun arren honetaz konpostik aberatsena da hondakin organiko guztiak erabilita egiten dana

**JUAN KARLOS GARITANO:** Hori analisiak esango dute, analisiak derrigorrezkoak zela in bidiazen orduan ikusiko dira a ver kalitatezkoak diren edo ez. Hori ikusiko da oinartean behintzat guk daukan informazioa ez da hori, analisi guztiak hondakin guztiak sartuta dauzenak eta bakarrik berdea sartuta dauena landareen eta horren zera bakarrik sartuta dauena ez dauka zerikusirik. Ikusiko da.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena <u>ONARTUA izan da.</u>**

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratutakoak** | **18** | |
| **Aldeko botuak:** | **14** | **BILDU (10), PSE-EE (3) eta ARALAR (1)** |
| **Aurkako botuak:** | **4** | **EAJ-PNV (4)** |
| **Abstentzioak** | **0** | |

## 7.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal Plenoak Alkateak emandako ebazpenen berri hartu du, 2014ko ekainaren 3tik ekainaren 27ra bitartean (Ikus II, eranskina)

## 8.- GALDERAK ETA ESKAERAK

**FRANCISCO GARCIA RAYA (PSE-EE):** Un ruego, aunque luego ya le he dicho al Presidente de la comisión de Servicios que quería hablar con él, pero quería que quedara constancia en el Pleno. Tenemos una magnífica traducción que nos han puesto ahora, antes se lo he comentado al Secretario, pero el público no tiene ningún elemento que pueda oír el Pleno, seguirlo. Ruego que se compren los aparatos adecuados para que si hay gente en el público que quiera seguir en Pleno, que pueda hacerlo tranquilamente, que ahora no hay ninguno para ello.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:40etan amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko uztailaren 1ean

| IDAZKARIA | LEHENDAKARIA |
|---|---|
| Iñigo Garitano Larrañaga | Inazio Azkarragaurizar Larrea |

# I. ERANSKINA

**KONPOSTAJE LEKUAK ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA LEKU HORIEN ARAUBIDE JURIDIKOA ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA**

**ZIOEN AZALPENA**

Arrasateko Udalak bere lehentasunen artean ditu **hondakinak sortzean prebenitzea eta horien kudeaketan hobetzea.** Zer hori jasota dago, batetik, Tokiko Agenda 21 plana onartu zuen agirian, eta hor ezarrita daude prebentzioa egiteko neurriak eta hondakinen kudeaketa hobetzeko neurriak ere bai, eta, bestetik, 2012ko ekainaren 12an eta 2014ko martxoaren 19an egindako osoko bilkuretan hartutako akordioetan, hondakin gutxiago sortzearekin eta hondakinak batzeko sistemarekin lotutako akordioak.

Neurri horiek bat datoz ingurumen agintariek bultzatu behar dituzten neurriekin, hondakinen murrizketa sustatzeko, autokonpostajea eta etxeko biohondakinen konpostaje komunitarioa sustatzeko.

Eredu horren abantailen artean hauek nabarmendu behar dira:

- Materia organikoaren zikloa ixten da, hondakinari baliabide balioa ematen zaio eta.
- Udalerrian bertan ixten denez zikloa, **biohondakin horiek ez ditugu garraiatu behar** eta gutxiago eraman behar ditugu tratamendu plantetara.
- Sortutako konposta ongarri moduan erabili dezakegu eta, hortaz, hobetu egiten dugu lurraren oparotasuna, egitura eta funtzionaltasuna.
- Ondorio positiboa du herritarren sentsibilizazioan eta prestakuntzan, ingurumenari buruz, izan ere, pertsona

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL RÉGIMEN JURÍDICO Y DE LAS CONDICIONES DE UTILIZACIÓN DE LOS PUNTOS DE COMPOSTAJE**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El Ayuntamiento de Arrasate tiene entre sus prioridades la **prevención en la generación de residuos** y la **mejora de su gestión**. Este hecho queda reflejado en la aprobación del plan de Agenda Local 21, en el que se establecen medidas para la prevención y también para la mejora de la gestión de los residuos, y en los acuerdos Plenarios de fecha 12 de junio de 2012 y 19 de marzo de 2014, acuerdos relacionados con la menor generación residuos y el sistema de recogida de residuos.

Estas medidas son coincidentes con las que las autoridades ambientales han de impulsar para promocionar con la reducción de residuos, el fomento autocompostaje y el compostaje comunitario de los bioresiduos de origen doméstico.

Dentro de las ventajas de este modelo se han de destacar las siguientes:

- Se cierra el ciclo de la materia orgánica, al dar valor al residuo como recurso.
- Al cerrar el ciclo en el mismo municipio, **no es necesario el transporte de estos biorresiduos** y se derivan menos a las plantas de tratamiento.
- El compost producido puede ser utilizado como abono y por tanto, se mejora la fertilidad, estructura y funcionalidad de la tierra.
- Tiene un efecto positivo en la sensibilización y formación de la ciudadanía con respecto al medio

bakoitzak berak sortzen dituen hondakinen kudeaketa prozesuan parte hartzen du.

- Gainera, hondakinak kudeatzeko era honek kultura eta gizarte arloko onurak ekartzen ditu eta udalerriko beste ekimen batzuekin lerrokatu daitezke, eta herritarren parte-hartzea sustatzen dugu eta herri biziagoa eta aktiboagoa lortzen dugu.

ambiente ya que cada persona participa en el proceso de gestión de los residuos que ella misma genera.

- Además, esta forma de gestión de residuos aporta beneficios culturales y sociales y se puede alinear con otras iniciativas del municipio fomentando la participación ciudadana y logrando un pueblo más activo.

Etxeko biohondakinen konpostajearen garrantzia ulerturik, Debagoieneko Mankomunitateak, 2005ean, prozesu bati ekin zion, hau da, Arrasaten eta eskualdean autokonpostajea sustatzeko prozesuari. Era berean, 2013an, konpostaje komunitarioko proiektu pilotu bat jarri zuen abian Arrasaten. Proiektu horretan 3 gune egokitu zituen udalaren lursailetan, konpostaje komunitarioa egiteko, eta gaur arte 108 etxebizitzak parte hartzen dute. Hortik aparte, herritar batzuek autokonpostajea egiten dute ortu, baserri eta beste gune pribatu batzuetan.

Entendiendo la importancia del compostaje de los biorresiduos domésticos, la Mancomunidad del Alto Deba inicio en el año 2005 un proceso para la promoción del autocompostaje en Arrasate y en resto de la comarca. Del mismo modo, en el año 2013 en Arrasate se puso en marcha un proyecto piloto de compostaje comunitario. En ese proyecto se habilitaron en terreno municipal tres puntos para el compostaje comunitario en el que hasta el momento, están participando 108 viviendas. Además, algunos ciudadanos y ciudadanas están realizando autocompostaje en huertos, caseríos y otros espacios privados.

Hurrengo pausua da ekimen hori handitzea eta, ahal den neurrian, konpostajearen bidez etxeko hondakinak kudeatzeko aukera ematea borondatez hala egin nahi duten arrasatearrei. Horrek guztiak behar bezala funtzionatzeko, beharrezkoa da egoki erregulatzea gune horien kudeaketa, eta konpostaje bidez etxeko biohondakinak kudeatzeko prest dauden herritarren eskubideak eta betebeharrak erregulatzea ere bai.

El siguiente paso es ampliar esta iniciativa y ofrecer, en la medida de lo posible, la oportunidad de gestionar sus residuos domésticos mediante compostaje a los y las Arrasatearras que de forma voluntaria deseen hacerlo. Para que todo esto funcione debidamente, es necesario regular adecuadamente la gestión de esos espacios, regulando asimismo los derechos y deberes de aquellos ciudadanos y ciudadanas dispuestos a gestionar sus biorresiduos domésticos mediante compostaje.

Ordenantza hau idazteko, indarrean dagoen estatuko eta autonomia erkidegoko araudi hau aztertu dugu.

- Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea, otsailaren 27koa.

Para la redacción de esta ordenanza, se ha estudiado la siguiente normativa estatal y autonómica vigente.

- Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de protección del medio ambiente del País Vasco.

- 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, hainbat lege aldatzeko, barne merkatuetan zerbitzuei buruz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/CE Zuzentarauari egokitzeko.

- Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior

- MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, baloratu eta kentzeko operazioak eta Europako hondakin zerrenda argitaratzen dituena.

- Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación y la lista europea de residuos.

- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinena eta lurzoru kutsatuena.

- Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

- 1528/2012 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, animalia jatorriko azpiproduktuei eta giza kontsumorako ez diren jakiei aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena.

- Real Decreto 1528/2012, de 8 de noviembre, por el que se establecen las normas aplicables a los subproductos animales y los productos derivados no destinados al consumo humano.

- 506/2013 Errege Dekretua, uztailaren 28koa, ongarriei buruzkoa.

- Real Decreto 506/2013, de 28 de julio, sobre productos fertilizantes.

Aipatu araudiaz gain, Europako araudia ere aztertu du Udalak (1069/2009 Erregelamendua).

Además de la normativa mencionada, también se ha estudiado la normativa europea (Reglamento 1069/2009).

Gainera, konpostaje komunitarioa nahiz autokonpostajea erregulatzen dituzten nazioarteko ereduak eta araudiak aztertu ditu.

Además, se ha analizado diferentes modelos y normativas de carácter internacional que regulan tanto el compostaje comunitario como el autocompostaje.

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua.- Helburua

Ordenantza honen helburua da konpostajea erregulatzea bi era horietan (autokonpostajea eta konpostaje komunitarioa) Arrasaten sortutako etxeko hondakinena, eta horien araubidea, konpostaje lekuen kokalekuen baldintzak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzea. Horretarako, puntu hauek hartuko dira kontuan:

## TITULO I

## DISPOSICIONES DE CARACTER GENERAL

### Artículo 1.- Objetivo

El objetivo de esta ordenanza es regular el compostaje en sus dos formas (autocompostaje y compostaje comunitario) de los biorresiduos domésticos generados en Arrasate, estableciendo su régimen, condiciones de emplazamiento de los puntos de compostaje, y derechos y deberes de los/las usuarios/as. Para ello, se tendrán en cuenta los siguientes puntos:

- Prozesu hori egiten den leku edo guneak jarri, mantendu, erabili eta jarraipena egitea.

- Konposta erabiltzea, duen kalitatearen arabera.

- Konpostaje prozesuan borondatez parte hartzen duten herritarren prestakuntza eta tutoretza.

- La instalación, mantenimiento, utilización y seguimiento de los espacios donde se lleve a cabo dicho proceso.

- La utilización del compost en función de su calidad.

- La formación y tutela de los/las ciudadanos/as que participan de manera voluntaria en el proceso de compostaje.

**2. Artikulua.- Aplikazio eremua**

Eremu hauen aplikatuko da araudia:

- Etxeko jatorriko biohondakinen konpostaje prozesuetan, aipatu bi eratan, horiek egiten direnean prozesu biologiko aerobikoen eta termofiloen bidez eta tamaina txikiko konpostaje elementuetan. Bai eta osatzen duten elementuetan ere.

- Autokonpostajeko eta konpostaje komunitarioko prozesuetan parte hartzen duten pertsonei

**Artículo 2.– Ámbito de aplicación**

La normativa será de aplicación en los siguientes ámbitos:

- En los procesos de compostaje de los biorresiduos de origen doméstico, en las dos formas citadas, cuando éstos se realicen mediante procesos biológicos aerobios y termófilos y en elementos de compostaje de pequeño tamaño. Así como en los elementos que los componen.

- A las personas participantes en los procesos de autocompostaje y compostaje comunitario.

**3. Artikulua.- Definizioak**

**Autokonpostajea:** Biohondakinak etxean bertan kudeatzea, hau da, zoru pribatuan banakako eran eta konpostaje prozesu baten bidez.

**Auzo konpostajea:** Biohondakinen kudeaketa egitea hainbat bizilagunek, denona den gune batean, konpostajearen bidez.

**Biohondakina:** Etxe, jatetxe, sukaldaritza kolektiboko zerbitzu eta txikizkako salmenta lekuetatik datozen janari eta sukalde hondakinak.

**Egituratzailea:** Biohondakin lehorra, jeneralean

**Artículo 3.- Definiciones**

**Autocompostaje:** Es la gestión de los biorresiduos en el propio domicilio, es decir, en suelo privado de forma individual y mediante un proceso de compostaje.

**Compostaje comunitario:** Es la gestión de los biorresiduos por parte de varios vecinos y vecinas en un espacio común mediante compostaje.

**Biorresiduo:** Residuos alimenticios y de cocina procedentes de hogares, restaurantes, servicios de restauración colectiva y establecimientos de venta al por menor.

**Estructurante:** Biorresiduo seco, habitualmente

parke eta lorategietatik datorrena (inausketako adarrak, hosto lehorrak, lastoa eta landare hondarrak). Egituratzaileak karbonoa ematen dio prozesuari eta hezetasuna gutxitzen du.

procedente de parques y jardines (ramas de poda, hojas secas, paja y restos de plantas). El estructurante aporta carbono al proceso y reduce la humedad.

**Etxeko hondakinak:** Etxeko jardueraren ondorioz etxeetan sortutako hondakinak. Aurrekoen antzekoak ere etxeko hondakin jotzen ditugu, baina zerbitzuetan eta industrietan sortutakoak. (22/2011 Legea)

**Residuos domésticos:** Residuos generados en los hogares como consecuencia de la actividad doméstica. Se consideran también residuos domésticos los similares a los anteriores generados en servicios e industrias. (Ley 22/2011)

**Hondakina:** Edozein substantzia edo objektu, hura daukanak baztertu edo baztertzeko asmoa edo obligazioa duenean. (22/2011 Legea)

**Residuo:** cualquier sustancia u objeto que su poseedor deseche o tenga la intención o la obligación de desechar. (Ley 22/2011)

**Konposta** Gaika jasotako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobiko eta termofilotik lortutako ongarri organikoa. Ez dugu kontsideratuko konposta, nahastutako hondakinen tratamendu mekaniko biologikoko plantetatik lortutako material organikoa, bioegonkortatutako materiala izendatuko dena. (22/2011 Legea)

**Compost:** Abono orgánico obtenido a partir del tratamiento biológico aerobio y termófilo de residuos biodegradables recogidos separadamente. No se considerará compost el material orgánico obtenido de las plantas de tratamiento mecánico biológico de residuos mezclados, que se denominará material bioestabilizado. (Ley 22/2011)

**Konpostagailua:** Konpostaje prozesua egiten den ontzia.

**Compostador:** Recipiente donde se lleva a cabo el proceso de compostaje.

**Konpostaje gunea:** auzo konpostajeko prozesua egiten den lekua. Leku hau behar bezala egokiturik dago konpostaje prozesua egiteko, eta hor daude konpostagailua eta konpostajea egiteko behar ditugun tresnak.

**Punto de compostaje:** Lugar donde se realiza el proceso de compostaje comunitario. Este punto está debidamente acondicionado para llevar a cabo el proceso de compostaje y en él encontramos el compostador y los utensilios necesarios para realizar el compostaje.

**Konpostajea:** Konposta lortzeko prozesu biologiko aerobiko eta termofiloa, biohondakinen deskonposizio kontrolatuaren bidez. (22/2011 Legea). Hauek dira prozesuaren faseak:

- Deskonposizio fasea. Fase honetan mikrobio jarduera handia dugu. Pilatutako materiala bihurtzen dute onddoek eta bakteriek, eta tenperatura oso altuak lortzen ditu, 70º C arte ere bai.
- Heltze fasea: Behin mikroorganismoek materia organikoa deskonposatu eta

**Compostaje:** Proceso biológico aerobio y termófilo para conseguir compost mediante la descomposición controlada de biorresiduos. (Ley 22/2011). Las fases del proceso son las siguientes:

- Fase de descomposición. Esta fase se reconoce por la elevada actividad microbiana. Los hongos y bacterias transforman el material acumulado consiguiendo temperaturas muy altas de hasta 70ºC.
- Fase de maduración: Una vez que los microorganismos han descompuesto la

gero, intsektuek, zizareek, eta abar egonkortu eta xehatu edo birrindu egiten dute.

materia orgánica, los insectos, lombrices, etc. la estabilizan y la desmenuzan.

**4. Artikulua.- Konpostajea egiteko baldintzak eta prozesua**

**Artículo 4.- Condiciones y proceso de compostaje**

1.- Konpostaje prozesua hasten da deskonposizioko aerobia fase batez, utzitako etxeko hondakinak nahastean sortzen dena. Gero, heltze fasearekin jarraitzen du; fase horretan ez dugu utziko hondakin gehiago, eta materiala konpost bihurtzen da.

1.- El proceso de compostaje comienza con una fase aerobia de descomposición que se produce al mezclar los residuos domésticos depositados. A continuación, prosigue con la fase de maduración; en esta fase no se depositan más residuos y el material se va transformando en compost.

2.- Esleitutako konpostagailuan hondakinak jartzen hasiko dira erabiltzaileak. Guztiz betetzen direnean, itxi egingo dira eta heltze prozesua hasiko da. Une horretan, parte hartzailek beste prozesu berri bat hasiko dute, beste konpostagailu batera botako dituzte hondakinak.

2.- Los usuarios y usuarias comenzarán aportando residuos en el compostador asignado. En el momento en que éstos se llenen por completo, se procederá al cierre del mismo, iniciando así el proceso de maduración. En este momento, las personas participantes comenzarán un nuevo proceso aportando residuos en otro compostador.

3.- Heltze fasea bukatutakoan, konposta prest egongo da erabiltzeko. Bahe batetik igaro ahal izango dugu, kalitate hobeko material bat lortzeko.

3.- Al finalizar la fase de maduración, el compost estará listo para ser utilizado. Se podrá pasar por un tamiz para conseguir un material de mejor calidad.

Pertsonak gogaitu barik egin behar dugu prozesua, eta eragin barik inpakturik ingurumenean; horretarako, konpostajea baldintza egokietan egitea bermatu behar dugu; horien artean, nabarmenduko dugu zein garrantzitsua den baldintza aerobikoak gordetzea prozesu osoan. Baldintza horiek betetzeko, prestakuntza saioetan eta eskura izango duten konpostatzeko gidan eskainitako argibideak jarraituz egingo dute prozesua parte-hartzaileek.

4.- El proceso se deberá llevar a cabo sin generar molestias a las personas ni impactos sobre el medio ambiente, para ello es necesario garantizar que el compostaje se realice en las condiciones adecuadas, destacando entre ellas la importancia de asegurar el mantenimiento de las condiciones aerobias durante todo el proceso. Para cumplir estas condiciones, los y las participantes llevarán a cabo el proceso siguiendo las indicaciones ofrecidas en las sesiones de formación y en la guía para compostar que tendrán a su disposición.

## II. TITULUA

## AUZO KONPOSTAJEKO GUNEAK EZARRI, MANTENDU ETA KUDEATZEA

## TITULO II

## IMPLANTACIÓN, MANTENIMIENTO Y GESTIÓN DE LOS PUNTOS DE COMPOSTAJE COMUNITARIO

### I. KAPITULUA – Udalaren eskubideak eta betebeharrak

### CAPÍTULO I - Derechos y deberes del Ayuntamiento

**5. Artikulua.- Auzo konpostaje eremuak eraiki eta kokatzea**

Udalak erabakiko du zeintzuk diren eremu egokiak auzo konpostajea eraikitzeko. Horretarako, kontuan hartu beharreko irizpideak hauek izango dira:

- Bizilagunek egindako eskaerak eta Udalak ikusitako beharrak.
- Eremua egongo den berdegunea Udalaren jabetzakoa izan behar da edo hura mantentzea udalaren ardura izan behar da.
- Berdegunean egokia izan behar da: Dimentsioak, kokalekua, etxebizitzetarako distantzia, irisgarritasuna… Eremu bakoitzaren balorazio bat egingo da, haren ezaugarrien araberakoa.

Eremu horien eraikuntza eta antolaketa lanak Udalaren ardura izango dira.

Halaber, Udalak, Ingurumen batzordeak proposatuta eta Tokiko Gobernu Batzarraren akordioz, egitate, gertaera edo justifikatzen duten arrazoietan oinarriturik, auzo konpostajearen eremua ixteko akordioa hartu ahali zango du. Kasu horretan, erabiltzaileek ez dute eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko.

Konpostaje lekuek gutxienez alderdi hauek izango dituzte:

- Hondakinak utzi eta deskonposatzeko eremua
- Egituratzailea uzteko eremua

**6. Artikulua.- Eremuen mantentzea eta materiala hornitzea**

Eremuen mantentze lanak (garbiketa, zaintza…) Udalaren ardura izango da. Sortutako kalteak konpontzea ere Udalaren ardura izango da, betiere beste pertsona bati egotzi ezean ardura.

**Articulo 5.- Construcción y ubicación de las áreas de compostaje comunitario**

El Ayuntamiento determinará cuales son las zonas adecuadas para la construcción de las de compostaje comunitario. Para ello, los criterios a considerar serán los siguientes:

- Solicitudes realizadas por los vecinos y las vecinas y las necesidades observadas por el Ayuntamiento.
- La zona verde donde se ubique el área ha de ser propiedad del Ayuntamiento o su mantenimiento ser responsabilidad municipal.
- La zona verde sea adecuada: dimensiones, localización, distancia a viviendas, accesibilidad…. Se realizará una valoración de cada zona en función de las características de la misma.

Los trabajos de construcción y organización de estas áreas serán responsabilidad del Ayuntamiento.

Asimismo, el Ayuntamiento, a propuesta de la comisión de Medio Ambiente y mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local, en base a hechos, sucesos, o razones que lo justifiquen, podrá adoptar el acuerdo de cierre del área de compostaje comunitario. En este caso los usuarios y las usuarias no tendrán derecho a recibir indemnización alguna.

Los puntos de compostaje dispondrán como mínimo de las siguientes partes:

- Zona de depósito y descomposición de residuos
- Zona para dejar el estructurante

**Artículo 6.- Mantenimiento de las áreas y suministro de material**

El Mantenimiento (limpieza, vigilancia…) de las áreas, será responsabilidad del Ayuntamiento. La reparación de los desperfectos producidos será, asimismo, responsabilidad del Ayuntamiento, siempre que no sea imputable la responsabilidad

a otra persona.

Behar bezala aritzeko beharrezkoa den materiala emango du Udalak: Konpostagailuak, aireagailuak, eskuareak, plaak, eskukoak…

El Ayuntamiento suministrará el material necesario para el correcto funcionamiento: compostadores, aireadores, rastrillos, palas, guantes…

Erabiltzaileak ekarritako etxeko hondakin organikoez nahasteko, behar den egituratzailea hornitzeaz arduratuko da Udala.

El Ayuntamiento se responsabilizará del suministro de estructurante necesario para mezclarlo con los residuos orgánicos domésticos aportados por los usuarios.

**7. Artikulua.- Konpostagailuetan konpostatu ahal izango diren etxeko biohondakinen motak**

**Artículo 7.– Tipos de biorresiduos domésticos que podrán ser compostados en los compostadores.**

I. Eranskinean agertzen diren etxeko biohondakinak konpostatu ahali zango dira.

Podrán compostarse los biorresiduos domésticos que aparecen en el Anexo I

**8. Artikulua.Konpostagailuetan konpostatu ezin diren etxeko biohondakinen motak**

**Artículo 8.– Tipos de biorresiduos domésticos que no podrán compostarse en los compostadores**

Ezingo dira konpostatu II. Eranskinean agertzen diren etxeko biohondakinak.

No podrán compostarse los biorresiduos domésticos que aparecen en el Anexo II

**9. Artikulua.- Ikastaroak eta jarraitu beharreko urratsak.**

**Artículo 9.- Cursos y pautas a seguir.**

Auzo konpostajean parte hartzeko, derrigorrean egin behar da ikastaro bat.

Será obligatorio realizar un curso para poder tomar parte en el compostaje comunitario.

Udalak ezarriko du zenbat pertsonak egingo duten ikastaroa, noiz egingo duten, eta konpostajeari buruzko ikastaroa ematen arduratuko da.

El Ayuntamiento, establecerá el número mínimo de personas para realizar el curso, establecerá la fecha de realización y se encargará de impartir el curso sobre compostaje.

Jarraitu beharreko urratsen berri emango du Udalak, bai eremuen funtzionamenduari dagokionez bai konposta sortzeko jarraitu beharreko metodologiari buruz.

El Ayuntamiento comunicará las pautas a seguir, tanto en relación al funcionamiento de las áreas como respecto a la metodología a seguir para producir compost.

Kexak, aholkuak edo ekarpenak jasotzeko, Udalak irekita izango du komunikazio bide bat erabiltzaileekin.

Al objeto de recoger las quejas, consejos o aportaciones, el Ayuntamiento tendrá abierta una vía de comunicación con los usuarios.

**10. Artikulua.- Eremuen eta taldeen antolaketa**

**Artículo 10.- Organización de las áreas y grupos**

Konpostagailu bakoitzari lotutako pertsona taldeak ezarriko du Udalak: pertsona kopurua, nortzuk erabiliko duten konpostagailu bakoitza eta nor izango da talde bakoitzeko arduraduna. Halaber, eremu bakoitzaren kudeaketa hobetzeko, Udalak beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak sartu ahal izango ditu.

El Ayuntamiento establecerá los grupos de personas asociadas a cada compostador: nº de personas, quienes compartirán cada uno de los compostadores y quien será la persona responsable de cada grupo. Asimismo, y al objeto de mejorar la gestión de cada área, el Ayuntamiento podrá a introducir los cambios

que considere necesarios.

**11. Artikulua.- Gainbegiratzea**

Udalak gainbegiratze lanak egingo ditu: Konpostajearen garapen zuzena, materia organikoaren eta egituratzailearen arteko oreka egokia, eta abar. Hau da: konpostaje prozesuaren garapena gainbegiratuko du. Gabeziak eta ikusitako jarduera lerroetan egin beharreko aldaketak erabiltzaileari pasatuko dizkio, aplikatu ditzan.

**Artículo 11.- Supervisión**

El Ayuntamiento realizará las labores de supervisión: desarrollo correcto del compostaje, equilibrio adecuado entre la materia orgánica y el estructurante, etc... Es decir: supervisará el desarrollo del proceso de compostaje. Las carencias o las modificaciones a realizar en las líneas de actuación observadas serán trasladadas al usuario para su aplicación.

**12. Artikulua.- Konpostaren kudeaketa eta jabetza**

Konposta, prest dagoenean, eremuko edozein erabiltzailek erabili ahal izango du. Soberakina Udalak kudeatuko du.

**Artículo 12.- Gestión y propiedad del compost**

El compost, cuando este listo, podrá ser utilizado por cualquiera de las personas usuarias del área. El sobrante será gestionado por el Ayuntamiento.

**13. Artikulua.- Ordutegia eta egutegia**

Erabiltzaileek konpostaje eremua erabili ahal izango dute urte osoan eta egunaren edozein ordutan.

**Artículo 13.- Horario y calendario**

Las personas usuarias podrán hacer uso del área de compostaje a lo largo de todo el año y a cualquier hora del día.

**II. KAPITULUA – Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak**

**CAPITULO II – Derechos y deberes de los usuarios**

**14. Artikulua.- Erabiltzailea, arduraduna eta talde lana**

*Erabiltzailea:*

- Erabiltzaileak dira etxebizitza baten pertsona titular guztiak, bai eta etxebizitzan bizi diren eta izena eman duten pertsona guztiak, eta auzo konpostaje eremu batean sartuta daudenak.
- Auzo konpostajean parte hartzeko, derrigorrezkoa da Udalak ematen duen konpostaje ikastaroa egitea.
- Etxebizitzan sortutako hondakin organiko guztiak ekarri ahal izango dituzte erabiltzaileek auzo konpostaje eremura, eta konpostagailuan utziko dituzte, Udalak emandako jarraibideen arabera.
- Sortutako edozein zalantza edo arazo

**Articulo 14.- Usuario/a, Responsable y Trabajo en Grupo**

*Usuario/a:*

- Son usuarios/as todas las personas titulares de una vivienda, así como todos las personas que vivan en la misma, que hayan dado su nombre y estén incluidos en un área de compostaje comunitario.
- Para poder participar en el compostaje comunitario es obligatoria la realización del curso de compostaje que imparte el Ayuntamiento.
- Las personas usuarias podrán aportar al área de compostaje comunitario todos los residuos orgánicos generados en la vivienda y los depositarán en el compostador según las pautas dadas por el Ayuntamiento.
- Trasladará al Ayuntamiento cualquier

helaraziko dio Udalari.

*Arduraduna:*

- Konpost egile bakoitzak arduradun bat izango du. Udalak izendatuko du edo taldeak berak aukeratuko du. Ardura hori txandakakoa izango da eta arduradunez aldatuko dute, Udalak finkatutako epeen arabera edo taldeak berak zehaztutakoaren arabera.

- Zeregin nagusiak bi izango dira. Oreka mantentzea hondakin organikoaren eta egituratzailearen artean, batetik, eta hezetasuna kontrolatzea, bestetik. Pertsona horrek zehaztuko du noiz dagoen egituratzailearen beharra. Berdina hezetasunari buruz, ura bota edo ez botatzeko beharra zehaztuko du.

- Sortutako edozein zalantza edo arazo helaraziko dio Udalari.

Erabiltzaileak behartuta daude ordenantza honetan zehaztutakoa betetzera, bai eta Udalak edo haren zerbitzu teknikoek ezarritako jarraibideak betetzera ere. Era berean, pertsona horiek behartuta daude konpostagailuak, tresnak eta eremua bera errespetatu eta zaintzera.

Erabiltzaileek eskubidea dute auzo konpostajea bertan behera uzteko, hala nahi dutenean. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko diote Udalari.

**15. Artikulua.- Hobaria**

Auzo konpostajean parte hartzen duten erabiltzaileek, hondakinen tratamendu kostuak gutxitzea dakarren neurrian, eskubidea izango dute hobari bat izateko zabor tasan, betiere etxean sortutako materia organiko guztia konpostatzen badute. Horregatik, ezingo dute utzi hondakinik Mankomunitateak ematen duen hondakin organikoak jasotzeko zerbitzuan.

Etxe bakoitzeko hobari bakar bat aplikatuko da.

Arrasateko Udalaren Ordenantza Fiskaletan urtero agertuko da hobariaren zenbatekoa.

duda o problema surgido.

*Responsable:*

- Cada compostador contará con una persona responsable. Lo nombrará el Ayuntamiento o lo elegirá el propio grupo. Esta responsabilidad será alterna y se cambiara de responsable según los plazos fijados por el Ayuntamiento o según lo determinado por el propio grupo.

- Los quehaceres principales serán dos. Mantener el equilibrio entre el residuo orgánico y el estructurante, por un lado, y controlar la humedad por otro. Esta persona determinará cuando existe necesidad de estructurante. Lo mismo en relación a la humedad, determinará la necesidad de aportar, o no, agua.

- Trasladará al Ayuntamiento cualquier duda o problema surgido

Todas las personas usuarias están obligadas a cumplir lo determinado en esta ordenanza así como las pautas establecidas por el Ayuntamiento o sus servicios técnicos. Igualmente, estas personas están obligadas a respetar y cuidar los compostadores, las herramientas y el propia área.

Las personas usuarias tienen derecho a abandonar el compostaje comunitario cuando así lo deseen. Para ello, deberán comunicárselo al Ayuntamiento por escrito.

**Artículo 15.- Bonificación**

Las personas usuarias que tomen parte en el compostaje comunitario, en la medida que supone una reducción de los costes de tratamientos de residuos, tendrán derecho a una bonificación en la tasa de basura, siempre que composten la totalidad de la materia orgánica generada en sus viviendas. Por ello, no podrán depositar residuos en el servicio de recogida de residuos orgánicos que presta la mancomunidad.

Se aplicará una única bonificación por vivienda.

La cuantía de la bonificación será establecida anualmente en las Ordenanzas Fiscales del

Ayuntamiento de Arrasate.

**III. KAPITULUA – Lortutako konpostaren kalitatearen kontrola eta haren erabilera**

Kapitulu honetan ezarritako neurriak auzo konpostajearen bidez lortutako konpostari aplikatu dakizkioke.

**16. Artikulua.- Kalitate kontrolaren helburua**

Konpostaren kalitate fisikoa, kimikoa eta biologikoa kontrolatu eta jakin beharra dago, konpost egonkorra lortu dela bermatzeko, horrela kaltegarria izan ez dadin pertsonen osasunerako eta ingurumenerako.

**17. Artikulua.- Kalitate parametroak**

Konpostaren kalitatea eta geroko erabilera zehazteko, erreferentzia gisa 506/2013 Errege Dekretuan ezarritako produktu ongarriei aplikatu dakizkiekeen irizpideak erabiliko dira. III. Eranskina.

**18. Artikulua.- Azterketen maiztasuna**

Konpostaje leku gune bakoitzean lortutako konposta konpostaje zikloa bukatutakoan aztertuko du. Lortutako konpostak bost urtean betetzen baditu kalitate parametroak, urte birik behin egingo du kontrola.

**19. Artikulua.- Erabiltzeko baldintzak**

Udala arduratuko da gomendioak jakinarazten erabiltzaileei, lortutako konposta zuzen erabili dezaten, praktika agronomo eta higieniko onak errespetatu ditzaten.

**20. Artikulua.- Erantzukizunak**

Auzo konpostaje prozesuan lortutako konpostaren kalitate kontrola egitearen arduraduna izango da Udala.

**CAPITULO III - Control de la calidad del compost obtenido y su utilización**

Las medidas establecidas en este capítulo serán aplicables al compost obtenido a través del compostaje comunitario.

**Articulo 16. – Objetivo del control de calidad**

Se debe controlar y conocer la calidad física, química y biológica del compost para garantizar que se obtiene un compost estable, de tal manera que su uso no sea perjudicial para la salud de las personas ni para el medio ambiente.

**Artículo 17.- Parámetros de calidad**

Para determinar la calidad y posterior uso del compost se utilizarán como referencia los criterios aplicables a los productos fertilizantes establecidos en el Real Decreto 506/2013. Anexo III

**Articulo 18. - Frecuencia de los análisis**

